

ZIRKUAZIO OROKORRA

Txertatu testua dagokion hutsunean

Zainek odola hartu eta bihotzera eramaten dute. Kaba zainak eskuineko aurikulara sartzen dira.

Ezkerreko bentrikulua uzkurdu egiten da, eta bihotzetik kanpora bultzatzen du oxigenatutako odola, aorta arteriaren bidez.

Kapilarretan, odolak oxigenoa eta mantenugaiak uzten ditu, eta hondakin-substantziak biltzen ditu.

Aortan zehar, hodi gero eta meheagoetara zabaltzen da odola, eta, azkenik, organo guztietako kapilarretaraino iristen da.

